

Agustin Arana Barinaga

*Eibar, Gipuzkoa
(1913-2013)*

Aurkibidea

Biografia



Eibartar "peto-petoa", gerra aurrean herria nolakoa zen ondo gogoratzen du. Gerra garaian frontean borrokatu zuen eta gerora preso egon zen luzaroan. Hitzun ona, kontu interesgarri asko aipatzen ditu. Elkarriketak "Zatixa" elkartearen ekin zaizkio, [Bartolo Arriola](#) lagun duelarik.

Zintak

AB-024

• **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan

- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte - Laspiur, Kontxa - Muruamendiaraz, Amaia - Ugarteburu, Mireia
- **Data:** 1990-01-17
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Audio digitala

AB-123

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Laspiur Zabala, Imanol
- **Data:** 1998-01-01
- **Iraupena:** 26 min
- **Euskarria:** Audio Analog

AB-212

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2000-02-23
- **Iraupena:** 94 min
- **Euskarria:** Hi8

EIB-026

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-12-31
- **Iraupena:** 34 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

EIB-040

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-03-15
- **Iraupena:** 27 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

EIB-045

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-04-05
- **Iraupena:** 10 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

EIB-046

- **Proiektua:** Eibarko ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-04-07
- **Iraupena:** 30 min

- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasketa, Ane
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. Eibarko ugazaben eta beharginen arteko harreman berezia

- **Erref:** AB-024/001
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Txikiteorako ohitura nola eta noiz hasi zen Eibarren. Lantegietako ugazaben eta beharginen arteko harremana oso gertukoa izaten zen; ohikoa izaten zen txikiteoa garaian elkarrekin ikustea hauek.

2. Abarketak, "Maria Ospital"-enean

- **Erref:** AB-024/003
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:04:34. **Bukatu:** 00:06:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Abarketa parek erosteko zailtasun ekonomikoak. Espartzuzkoak, eta gomarik gabeak izaten ziren hauek eta "Maria Ospital"-enean erosi ohi zituzten. Igande eta jai egunetarako abarketa zuriak gordetzen ziren.

3. Jaiak inguruko herrietan: Elgoibar, Bergara...

- **Erref:** AB-024/004
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:06:14. **Bukatu:** 00:08:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Inguruko herrietako jaietara joaten ziren: Elgoibar, Bergara... Errepidetik, oinez egiten zuten joan-etorria. Zazpiak aldera afaltzen zuten, gau erdira bitartean, aprobeitzatzeko nahikoa denbora geratzen zitzaizela kontatzen dute.

4. Aratusteak Eibarren

- **Erref:** AB-024/006
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:10:07. **Bukatu:** 00:11:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Herriko soziedade desberdinak arduratzen ziren, txandaka, inauterietan dantzaldiak antolatzeaz. Astelena pilotalekuan oholza jartzen zuten eta herri guztia hurbiltzen zen bertara "koko-jantzita": trapu zaharrekin egindakoak batzuk, besterik gabe, jakari buelta emanda beste hainbat.

5. Serenoak eta haien egitekoak

- **Erref:** AB-024/009
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:13:04. **Bukatu:** 00:17:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Eibarko taberna guztietan egiten zen kantuan. 10etatik aurrera, serenoa (gauzaina) agertzen zen eta kantari zebiltzanak isilarazten saiatzen zen. 4-5 sereno zeuden Eibarren. "Patillas" gauzainari gertatutako anekdota.

6. Eibarko euskararen berezitasunak

- **Erref:** AB-024/011
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:17:44. **Bukatu:** 00:21:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Eibarko euskararen berezitasunei buruz dihardute, Amuategi Batailoiko norbaitek gerra garaian botatako esaldi honen harira: "Aparato enemiguak aparezidu dittuk horizonte gañian Eibarko poblaziño zibilla bonbardeatzera. Ez daok deretxorik holako injustizia kometitzeko pueblo industrial bateri!". Eibarko euskararen eta inguruko herrietako euskararen inguruko azalpenak.

7. "Don Eusebio de Ardaule": gaztelerarekin komeriak eskolan

- **Erref:** AB-024/013
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:23:53. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Gazteleraz ziren orduko eskolak eta, askorik ulertzen ez zutenez, ez zuten gehiegi ikasi. Don Eusebio irakasle erdaldunari gertatutako pasadizoa kontatzen du: "Ardi-ule" zuen gaitzizena baina, baten batek txistea harrapatu ez eta, irakaslearen abizena zelakoan, beste nolabait zuzendu omen zitzaion behin.

8. Gerra denboran ikasi zuten gazteleraz

- **Erref:** AB-024/014
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:26:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gazteleraz ez zuten ondo ikasi gerra etorri zenera arte. Oinarrizko ikasketak amaituta ere, ez zekiten ganoraz idazten. Frontean zegoela, etxera gutuna idaztea baino, guardia bat egitea nahiago zuela dio. Pasadizo bat kontatzen du honen frontetik idatzitako gutun baten harira: "Cómo está el perro? Mándame dinero" eta, etxekoek erantzun "Perro bien; dinero no hay".

9. Untzagako kioskoko dantzaldiak

- **Erref:** AB-024/018
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:34:46. **Bukatu:** 00:36:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Beasainera saldu zuten Untzaga plazan zegoen musika-kioskoa. Ostegunero eta igandero egoten zen dantzaldia bertan. Herri guztiak hartzen zuen parte. Neskatan/mutiletan nola egiten zuten azaltzen du.</p>

10. Maltzaga, Matsaria, Barrena zaharra eta beste presa askotan igerian

- **Erref:** AB-212/002
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:00:49. **Bukatu:** 00:02:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

Laburpena:

<p>Umetako kontuak; Maltzaga, Matsaria, Barrena zaharra eta beste presa askotan igerian.</p>

Transkripzioa

- Kontauko deskuzue zelan ibiltzen ziñazien zuek igarixan ta nun ta...
- Agustin: Nun?
- Bartolo: Ahal dan lekuan! Ura, potzua zeuan lekuan!
- A.: Eibarren, esango detsut, ba, bakotxak, batzuk, igarixan ondo ta jakiñian zertzen dabenak Maltzagara faten zian.
- B.: Maltzagara igarira, Maltzaga zuan zerori.
- A.: Ta Maltzagako trenbidako zeretik eitten eben salto be. Baiña...
- B.: Trenbidako barandatik batzuek! Beste batzuek pillarretikan, pillarren ertzetik...
- Baiña hor alturia egongo zan, ez?
- A.: Bai, ya lo creo!
- B.: Askok egon bihar...
- A.: Bariantia izan bihar zan handik salto eitteko!
- B.: Gaiñera, barandatik salto eitten zebeak, pillarak holan jeukan, ba, barandia hemen, ta hau be pasau ein bihar uretara juateko.
- A.: Ostian, hurrao ibiltzeko, Txontan zan presia. Txontako presia izaten zan. Txontan euan presa bat. Haintxe eitten genduan beste kuadrilla batek. Ta beste batzuk...
- B.: Matsarixan be bai!
- A.: Matsarixan be bai! Ta baitta oin Gabilondok taillarra dakan lekuan be...
- B.: Han, Barrena...
- A.: Barrena Zaharra. Presia euan, ba, han.
- B.: Han errotia euan han! Ta errotarako presan.
- A.: Haintxe. Ostian...
- B.: Ta zerian be bai, presa-gaiña esaten jakon lekuan...
- A.: Baitta!
- B.: Otolaerdiko basarrixan aurrian be bai...! Haintxe daok presia ondiokan. Apurtuta! Baiña presia han daok! Eregixa ein erdixan ta presia apurtu barik, total kendu barik daok. Han be bai. Ta zerian be bai, hemen, oin hotela daon aurrian be presia euan, ba, hona 'Cacho'nerako...

11. Eibarko presak eta errotak; Orbea lantegia lehena argindarra erabiltzen

- **Erref:** AB-212/003
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:02:09. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Eibarren ur asko zegoelako sortu zen industria. Eibarko presak eta errotak; Orbea lantegia lehenengoa argindarra erabiltzen.</p>

Transkripzioa

- Bartolo: Eibarren industria ein dok, horretxeaittik ein dok Eibarren industria. Lehen elektrizidaderik ez euanian, urakin ein bihar zuan ba mobimentu guztia! Ta Eibarren ur asko jeuan, errota asko. Hangotxiaaittik ein zan industria, ta gero, bertan jentia lanian ikasi ta gero elektrizidadia etorri zanian, jarraitu bertan! Baiña uragaittik izan da. Eibarren presa...

asko euazen presak! Asko, asko. Eibarren, hasi bai Olarriatik eta Maltzagara, estaziñuan ondora, hari Susaeta 'Cojones' esaten jakon [...] hara bajeuazen, baiña hamar bat, hamar edo hamaika presa jeuazen Eibar barruan zihar. Kontau be ein leikez harek. Hasi zerian, Olerrian euan lehenengua, Zamakolaneko zererako, panaderixarako errotia bat. Gero euan Otolan-erdi onduan jeuan: gero Amañan jeuan beste bat: hiru. Bat, bi...

- Agustin: Ta hamen Ariatzan be baeuan beste bat.

- B.: Ariatzan be baeuan. Ta gero Bidebarrixetan jeuazen, zerekua, Txomonerakua. Ta gero hor beste bat jeuan Arotz-Haundixanarakua...

- A.: Arotz-Haundixanekua, errotia...

- B.: Asike, herrixan erdira inguru edo, sei presa-edo euazen! Gero erdittikan, Urkuzuko... oin, itturrixa badaok ba...?

- A.: Urkuzuko itturrixan onduan...

- B.: Botijerua ipini juek ba...? Han be presia jeuan! Hango ura juaten zuan...

- A.: Orbeanera.

- B.: Orbeanera! Orbeak lehelengo taillarria ipini zeban lekura! Oin zera daon lekuan dok hori, ez dok? Horrek etxe barrixok ein jittuek, ba, klinikia egondako lekuan? Han aurrian ein eben, ba, etxe barri bat, zera, Gonzalezenan albuan, azeituneruan albuan? Haintxe zuan Orbeaneko lehelengo taillarria. Ura juaten zuan hara ta haintxe euan [zerori...]...

- A.: Lehelengo Eibarrera indarra emon ebana haxe izan zan.

- B.: Gero argixa hartu zebana.

- A.: Argixa lehelengo emon ebana.

- Lehelengo bonbillia han ikusi zan...

- A.: Bai, bai, bai. Elektrizidadia handitxik. Ordura arte danak kandlekin edo...

- B.: Kandillakin! Karburuakin! Karburuakin ta olixuakin be bai kandillak.

- Zuek ezautu zenduen holakorik?

- B.: Ez, nik ez.

- A.: Ez, neuk be ez.

12. Argindarra baserrietara heldu zen garaiko kontuak

- **Erref:** AB-212/004
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:04:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Argindarra baserrietara heldu zen garaiko kontuak.</p>

Transkripzioa

- Argixa bazeuan, baiña ondiokan tokiren batzuetan egongo ziran kandillak eta kandelak eta...

- Bartolo: Hori aintziñako ipuiña dok, baiña basarri baten ipiñi zebenian zera —hori, entzunda, hori ipuiñori?—, basarri baten ein ei juen, ba, bonbillia, argixori... Izaten zuan bonbillia, eukitzen eban holakotxe filamenta bat, holantxik arko bat, ta gero puntia eukitzen juan bonbilliak punta bat. Puntia apurtzen bajakon ez juan balio bonbilliak. Holakotxe

txurten bat eukitzen juan. Ta basarri baten ipiñi ei juen, ba, [...ori] ta “Enee...!” danak pozik! Zaharrenak, hango zaharrenak, esan ei juan ezetz, atraso haundi bat zala. “Zegaittik baiña?” ta “Piparik be ezin ixotu oin!”. Lehen juaten zuan sutara ta ixotu eitten juan ba pipia... ta atrasua harentzako!

13. Eibarko futbol taldeak; zelaia; jokalaria internazionalak

- **Erref:** AB-212/006
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:05:12. **Bukatu:** 00:08:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Futbolaren inguruko kontuak. Eibarren ezagutu zuten lehenengo futbol zelaia: "El Campo de la casualidad". Abarketekin jokatzen zuten. Talde asko zeuden. Euren lehenengo taldea Montesinos; gerokoa Aberrixa. Eibarrek ez zuen futbol zelairik, baina bai jokalaria internazionalak.</p>

Transkripzioa

- Agustin: Gero, pelotan ta foballian ta, ba... foballian ekipua-edo behin pixkat zertzen... distingitzen zanian, korrida plaza gaiñian euan zer bat, lau-una bat, buztinakin ta, dana buztinakin ta zera...
- Bartolo: Badakik ze pasau zan harekin, haren istorixia entzunda hao, harena...? [...] Eskola Armerixia proiektu zuan haintxe, hortxe Korrida plaza gaiñian, Korrida plazia daon[an] gaiñian. Ta ein jittuen, esplanadia ein juen: esplanada bat hola, ta beste bat hola, eskudran ein juen. Ta gero [ez jetsen iritzi] han ondo eittia, ha ez zala egokixa, ta gero Isasi gaiñian ein juen gero. Baiña Eskola Armerixiandako ein zuan ha. Ta badakik ze izen ipiñi zetsan hari...? Eibarren bajeuan... Argomániz-ek ipini jetsan izena hari: "Campo de la casualidad". Foballian eitteko beste lekuri ez jeuan ta haintxe. Ta horixe izenori ipini jetsen.
- Horretxeaittik?
- B.: Hoixeaittik!
- Kasualidadia izan zalako.
- B.: Kasualidadez urten juan harek! Haintxe eitten gendua] foballian. Ta orduan, gaiñera, jaixegunian ta domeketan, aste guztian biharra eitten zuan ba, jaixegunian kanpua hartzeko goixeko seiretarako juaten zuan jentia! Harrapataka danak! Behin hartzen zebanian batek sailla, beran ekipuandako! Harek amaittu arte, iñok ezin jokatu han. Kanpo haundixa ta kanpo txikixa esaten jakuen.
- Ta hor ze eitten zian, partidu pixkat serixuak edo...?
- B.: Ooo! Bertakuen artian! Bertako ekipuen artian!
- A.: Bai, bai, bai. [...] pixkat han ya... zerakin, esan gura dot... ekipua... jersixekin ta ya...
- Torneuak eta...?
- A.: Torneuak... ba. Torneuak be... ba! Egongo zittuan torneua be, eztok?.
- B.: [Neri ez jatak] torneo konturik akordatzen...
- Jokatzen zenduen zuek?
- B.: Bai, ni jokatuta naok...
- A.: Nik ez juat jokatu...
- B.: Hik ez huan behin be jokatu, e?

- A.: Nik ez.

- B.: Ni [...] akordatzen nok han. Baten, gaiñera, abarketekin nebixan ta jo najuan... Ein bihar izaten zuan, gaiñera, ebagitta jeuan ba, ta kanpuan, ba, kanpora ez zuan juaten baloirik! Oin izaten dan moduan, berriro eskuekin etara ta holakorik. Jo horman ta kitia ein ta bestekaldera juan ta aurrera! Jo najuan baten hor, zera, ostikuakin jaurti baloiori ta, jo najuan mendixori ta abarketia apurtu jatan ta hanka guztia geratu jatan baltz-baltz einda!

- Ta zein zan zure ekipua?

- B.: Ba, guk... guk euki genduan lehelengua, Montesinos ipini jakuan izena.

- A.: Montesinos lehelengo ta gero Aberrixa.

- B.: Gero Aberrixa.

- Ta beste ekipo batzuk be egongo ziran, ezta?

- B.: Ene! Mordua ekipuak Eibarren!

- A.: Bueno... Asko, asko.

- B.: Txiri-Birixa ta Altza-Praka ta Lagun-arte ta Izarra ta Estrella ta...

- A.: Gero azkenengo egon zana, azkenengo egon zana [Ibargaiñian], zera zuan ha ekipua...

- B.: 'Gallua'?

- A.: Ez, ez...

- B.: A! "Unión Deportiva Eibarresa"!

- A.: "Unión Deportiva Eibarresa".

- B.: Haxe, onena egon dana haxe! Honek, internazionalak be urten juen handikan: Ziriako-ta, internazionalak, Roberto ta Mugerza ta...

Internazional izan zianak. Kanpo foballik ez Eibarrek ta internazionalak! Ta oin kanpo fubola ta internazionalik bapez!

- Meritua orduan...

- B.: Meritua? Ziriako, Mugerza, Roberto... Gero Garate egon zuan gero, baiña Garate gerra ostekua dok Garate.

- A.: Bai, ta zera be... Gabilondo be bai.

- B.: Gabilondo! Baitta! Gabilondo be gerra aurrekua, kanpo fubolik ez euanekua!

14. Eibarko lehenengo futbol zelaia; futboleko tranpak

- **Erref:** AB-212/007
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:08:29. **Bukatu:** 00:10:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Eibarko lehenengo futbol zelaia Otolardikoan egon omen zen, baina beraiek ez zuten ezagutu. "El campo de la casualidad" futbol zelaia. Atezain bat estrata zulora bota zuteneko pasadizoa. Orduan tranpa asko egiten ei zen. Ortuzarren tranpak.</p>

Transkripzioa

- Eta hori, zuek ez zenduen ezautuko, baiña "Campo de la casualidad" ein baiña lehenao, beste bat be egon zala... Ez?

- Bartolo: Bai, Otolardikua!

- Hori ez zenduen zuek ezautu...

- B.: Ez, nik ez najuan ezautu. Hik ezautuko huan igual...

- Agustin: Ezautu, ezautu... Bai, ezautu [...], baiña...

- B.: Otolardiko basarrixa badaok ba han? Basarritik oin badaok, ba, Tekniker-ta badaok, ba? Han solua zuan, haintxe zuan kanpo foballa. Handik Olarria alderutz, basarritikan harutz. Otolardikua.

- Ta gero hau, "Campo de la casualidad", noiz inaugurau...? Bueno, inaugurau...

- B.: Hori inaugurau be ez zuan ein! Hori...

- Bueno, noiz hasi zan edo...

- B.: Hori... Eskola Armerixia hamalauan inaugurau zuan, ba, Eskola Armerixia, einda. Ba, ha eitteko eindako sailla zuan ha, asike...

- Hor inguruan, hamarra edo...

- B.: Bai. Buztiña zuan ixa dana, e! Korrida plazia jeuan, korrida plazia holaxen ikusten genduan.

- Agustin: Gero, aldatzeko zerik eta... ezta ezebe, e! "Al aire libre" dana.

- B.: Bai, bai, bai.

- A.: "Al aire libre".

- B.: Hi akordatzen haiz, Sebastiani ze pasau jakon, Iraolagoitiari, horko librerixakuan aittari, Sebastianeri?

-A.: Ez. Prterua edo zuan...

-B.: Porterua zuan ha! Ta jeuan porterixia holan, ta porterixian azpittik jeuan, tutuluko estratia esaten jakuan, ba? Sakonian, ba, porterixatik holan jarri ta metro bi edo hiru beherao bidia, zerera urtetzen juan, oin Lanbreta daon lekurako bidia. Handik gora estratia. Ta orduan, porterua kargau eitten zuan, bota baloia [gora] ta dana, porterua ta portero ta guzti barrura! Orduan porteruak ez juan faltarik eitten, ta estratara bota juen porterua! Ta bizkarrazurrian ein etsen zeoze ta betiko geratu zuan oker. Bai.

- Lau metro behera bota baldin bazeben...

- B.: Lau metro ez zuan, baiña metro bi edo... bi egongo zittuan hara. Bota ein juen [karrilla] einda.

- A.: Orduan tranpa asko euan libre. [...gaittik] esaten juen. [...] zan hor beste bat "Unión Deportiva Eibarresa"ko...

- B.: Ortuzar jakuan apeldua.

- A.:Jugadoria. Ta harek, kornerrik baeuan, harek porteruari hankia zapaltzen etsan.

- B.: Hankia zapaldu porteruari harek! Harek beran misiñua haxe! Porteruari [...] salto ein, ta gaiñera hankia zapaldu!

15. Kalean jolasten zuten; abarketak zaindu egin behar

- **Erref:** AB-212/008
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:10:32. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Abarketa zaharrekin jokatzeko zuten futboleko, berriak ez apurtzearen. Euria ari zuenean, abarketak kendu egiten zituzten eskolatik etxera joateko. Kalean egiten zuten jolas, bai futboleko edo bai beste edozertan.</p>

Transkripzioa

- Orduan foballa gogorraua izango zan, ez?
- Agustin: Bai, bueno, gogorraua... Gaiñera, sarrittan guk jokatzen genduanian, nik ez neban foballian asko zertu, baiña abarketekin-edo sarrittan! Ez oingo moduan zapatak eta! Abarketa zaharrekin!
- Bartolo: Abarketekin. [...] abarketak bestela onak apurtu eitten zittuan, ta zaharrekin!
- A.: Abarketa zaharrak edo zapata zaharrak edo...
- B.: Orduan ez jeuan dirurik eta...
- Nik entzunda dakat ya ez kanpo foballian-eta ez, baiña kalia-eta jokatzen zenduenian, batzueri amak ez zetsela lagatzen abarketekin jokatzen eta ortozik jokatzen zebela.
- B.: Ez jakixat, hainbesteraíño ez juat ezautu nik. Baiña izan leike hori egotia be.
- A.: Bai, bai... Bueno, hori pixkat... Gu eskolatik eta eurixa bazan, abarketak ez estropeatziarren, abarketak lepuan hartu eta etxera faten giñan gu.
- B.: Bai, lotu alkarri ta bota bizkarrera ta... Hori bai. Hori bai.
- A.: Oingo modoko zerik ez zeuan orduan.
- Kalia be bai, umetan, gaztiauak ziñazienian, holan, ume koskorak, kalia jokatuko zenduen, ezta, foballian?
- B.: Kalia? Pentsaik! Esan neuan, ba, Bidebarrixetako automobillana? Galloko parian, Rialto parian, ipini zer bi, harri bi edo zapatak edo zeoze ipini, [...] bi ta porterua han. Ta bestia han, zubixa badaok, ba, Arikittanetik behera? Aranerako... Arabne esaten detsau guk, Fundidoreseko zera? Han beste bi. Ta foballian domeka arratsaldian hantxe. Ta automobilla noizian behin etortzen zanian, geldittu, ta automobilla juandakuan, segi!
- A.: Oingo zerik ez geKaun guk gaztetan, oingo joko zerik... dibersiñotarako lekurik ez zeuan orduan.
- B.: Ez, ez. Bakoitxak asmau bihar juan beran dibersiñua.
- A.: Norberak asmau bihar!

16. Umetako entretenimendua: sagar lapurreta

- **Erref:** AB-212/009
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:12:05. **Bukatu:** 00:13:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako kontuak. Kuadrillak elkartzen ziren eta beti asmatzen zuten zerbait denbora pasatzeko. Sagasti asko zegoen orduan Eibarren eta sagar lapurretan ere ibiltzen ziren.

17. Eibarko sagardotegiak eta bolatokiak

- **Erref:** AB-212/010
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:13:06. **Bukatu:** 00:14:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Eibarko sagardotegiak eta bolatokiak. Orduko sagardotegiak nolakoak ziren. Edalontzia txakur handian.

18. Zezen plazan futbolean

- **Erref:** AB-212/011
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:14:29. **Bukatu:** 00:15:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Sasoï baten zezen plazan egiten zuten futbolean domeketan, euren lagun baten aita eta osaba (Retolaza) zirelako zezen plazako nagusiak. Galtzen zuenak baso bat sagardo ordaindu behar irabazleari. "Burunera" gero sagardotegira.

19. Garai bateko baloiak; eibartarrak Real Unión zaleak

- **Erref:** AB-212/012
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:15:53. **Bukatu:** 00:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Garai bateko baloiak larruzkoak izaten ziren eta ura hartzen zuten bustitakoan. Nolakoak izaten ziren. Putzezko baloiak. Bederatzi txakur handi balio izaten zituen. Jendea Real Unión taldearen aldekoa zen Eibarren; indarra zuen orduan eta Espainiako txapeldun ere izan ziren.

20. Umetako jolasak: txirikilletan, kaniketan eta intxaurrekin

- **Erref:** AB-212/013
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. Txirikiletan nola jolasten zen. Kaniketan eta intxaurrekin "potxoloka". Kanikak nolakoak izaten ziren. Intxaurrekin "kontra-kontran" ere jolasten zuten, besteen intxaurrak apurtzera. Batzuek tranpak egiten zituzten.

21. Umetako kontuak; kardantxiloak harrapatzen

- **Erref:** AB-212/015
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:22:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako kontuak; kardantxiloak harrapatzen. Kaiolan edukitzen zuten kardantxilo kantari bat eta harekin joaten ziren txoriak harrapatzera. Harra bazen, kanturako eta emea bazen, jateko. Bartolok Urkoko kobazulora joan izan zela dio.

22. Loinak eta karramarroak harrapatzeko teknikak

- **Erref:** AB-212/016
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:22:32. **Bukatu:** 00:25:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

"Agorrean" ezkailuak nola arrantzatzen zituzten. Gero sagardotegira joan eta jan. Batzuek "profesionalak" ziren. Loinak eta karramarroak harrapatzeko erabiltzen zituzten teknikak. Ze ingurutan egoten ziren arrainak edo karramarroak.

23. Arrantza debekatuta

- **Erref:** AB-212/017
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:25:51. **Bukatu:** 00:27:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Arrantza debekatuta zegoen eta mikeleteak zaintzen ibiltzen ziren. Bartolok Berriz aldean guardia zibil batekin gertatu zitzaiena kontatzen du.

24. Gerra sasoiko pasadizo umoretsuak

- **Erref:** AB-212/019
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:27:28. **Bukatu:** 00:30:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gerra sasoian, preso zegoela, Laredotik Valladolid ingurura eramán zuten Bartolo. Han gertatutako pare bat pasadizo umoretsu kontatzen ditu. Lehenengoa, mendirik ez zegoelako azkoitiar batek egindako komentarioa. Bigarrena, ardoa edaten zuen moduagatik nola "ezagutu" zuten.

25. Txikiteoa, kanpotarrek ekarritako ohitura

- **Erref:** AB-212/021
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:30:52. **Bukatu:** 00:32:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Garai baten ez zen txikiteorik egiten Eibarren. Kanpotik etorri ziren lanbide ezberdinetako beharginek ekarri zuten ohitura hori. "Guarnizionerua"ri "astuen sastia" esaten zioten. Aurretik tabernara joan eta, kontuak esanez, ardoa baso handi batetik edatea zen ohitura.

26. `Simontxo´ri "Noche" tabernan gertatutako pasadizoa

- **Erref:** AB-212/023
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:35:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

`Simontxo´ri gertatutako pasadizoa. "Noche" tabernara joan eta ardo zuri bat eskatu zuen. Zerbitzariak zer atera zion, nahastuta.

27. Gaitzizen moduan animalia izenak jartzeko ohitura

- **Erref:** AB-212/024
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:35:02. **Bukatu:** 00:37:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Euren kuadrillari `Erleak´ gaitzizena zergatik jarri zioten. Geroago `Kobardiak´ ere deitzen zieten. Bartolori berari ze gaitzizen jarri zioten. Gaitzizen moduan animalien izenak jartzeko ohitura handia zegoen: txepetxa, zozua, belia... Bartoloren andrea "Zozuanekua".

28. Eibar herri zaratatsua

- **Erref:** AB-212/026
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:39:32

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bartolo Armeria Eskolako gau-eskoletan ibili zen. Beti zarata artean lan egin izan duela dio. Horregatik hitz egiten omen du altutik.

29. Pilotan "fueraka"

- **Erref:** AB-212/027
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:39:32. **Bukatu:** 00:40:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotan "fueraka" jokatzeko zuten. Horma bat zegoen lekuan, hantxe jokatzeko zuten. Gainera, leku askotan debekatuta egoten zen.

30. Pilota egin berriak biguntzen

- **Erref:** AB-212/028
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:41:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Gaur egun pilotak bigundu egiten dituzte erabili aurretik, baina garai batean ez. Pilota egin berriak gogor-gogorrak egoten ziren eta beraiei ematen zizkieten, biguntzeko, "neurrira ekartzeko". Gero, bigundutakoan, profesionalei ematen zizkieten.

31. Aginazpireneko trinketa eta Batzokiko frontoia

- **Erref:** AB-212/029
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:41:44. **Bukatu:** 00:42:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Euren sasoiko pilotariak. "Aginazpi" tabernaren atzealdean trinketa zegoen. Astelenako atezaina, Salome. Batzokian ere bazegoen frontoia. Batzokien arteko txapelketak ere egiten ziren.

32. Migel Gallastegi "Kiputzaneko" aulkiak jasotzen, pilotan jokatzearren

- **Erref:** AB-212/030
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:42:54. **Bukatu:** 00:44:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Migel Gallastegui Kiputzaneko frontoian egin zela pilotari dio. Zinema emanaldiak egoten ziren eta hura amaitzean aulki guztiak jasotzen zituen Migelek, dohainik pilotan jokatzearren.</p>

33. Eibarko zinemak

- **Erref:** AB-212/031
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:44:07. **Bukatu:** 00:45:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Eibarko zinemak: Kiputzanekoa, "Salón Teatro" eta "Salón Cruceta". Gero Rialtoa egin zen. Hasieran "salón de baile" izan omen zen. Dantza lehiaketak ere egon ei ziren. Ez zuen arrakastarik izan eta zinema egin zuten gero. Noiz egin zen.

34. Rialto dantza aretoa Donato Ojangurennek egina

- **Erref:** AB-212/032
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:45:42. **Bukatu:** 00:47:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Indalecio Ojanguren argazkilariaren anaiak, Donato Ojangurennek, eta haren bazkide batek egin zuten Rialtoa. Pixka bat bihurria omen zen eta Argentinara bidali zuten gaztetan. Aberastuta itzuli ei zen handik. Dantzan oso ona omen zen. Argentinako mentalitatearekin egin omen zuten Rialto dantza aretoa

35. Astelenako eta Untzagako dantzaldiak; "ertza" egitea

- **Erref:** AB-212/033
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:47:35. **Bukatu:** 00:48:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Astelena frontoiko dantzaldiak igande gauetan. Udan Untzagan ere egoten ziren dantzaldiak. Untzagako kioskoa. Bi korro egiten ziren, handia eta txikia. Batzuek "ertza" egiten ei zuten: begira egon. Bartolo gutxitan joaten zen dantzaldietara.</p>

36. Gerra sasoiko anekdota

- **Erref:** AB-212/041
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:04:05. **Bukatu:** 01:06:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Juanito igeltseroari gertatutako kasua kontatzen dute. Gerra hasi zenean, alokairuan zegoen etxe batean. Ezkontzekotan zebilen orduantxe, eta etxean altzariak eta ezkontzen zenerako gauzak zituen. Traste guztiak gela itsu batean sartu eta itxi egin zuen horma faltsu batekin. Gerra ostean dena errekuperatu ahal izan zuen.

37. Inguruetako "errekadistak"; trena

- **Erref:** AB-212/047
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:20:45. **Bukatu:** 01:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Inguruetako "errekadistak": Alonso (Elgoibar); Turkua (Plazentzia), Torre... karroan etortzen ziren, zaldiarekin. Jendea ere eramaten zuten. Plazentziara, Zumarragara... trenean joateko aukera zegoen lehen. Elgoibarrera oinez joateko ohitura.

38. 'Zatixa' elkartea erreka ondoan dago eraikita

- **Erref:** EIB-026/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Eibarko errekaen zatirik gehiena estalita dago. Erreka gainean eraikitako

lehenengo etxea udaletxea izan zen, Untzaga plazan. Ondoren "Dos de Mayo" (Toribio Etxebarria) kalearen zati bat egin zuten eta gerraostean beste zati bat. Bartoloren eta Agustinen elkarte egin zenean, zuloa egin behar izan zuten erreka-zulora.</p>

39. Agorra eginez arrantzan; "txingia" eta "esparbela"

- **Erref:** EIB-026/002
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Gerra aurrean Eibarko umerik gehienak errekan bainatzen ziren. Amuarrainak ere baziren eta asko harrapatzen ziren. Erreka garbi-garbi zetorren. Gerraostean zikintzen joan zen. Bartolo eta Agustin ez dira arrantzaleak izan, baina agorra egin eta ezkailuak harrapatzen ibilitakoak dira. Harriekin presa modukoa egin, erreka agortu eta handik ezkailuak eta loinak harrapatu. Lekurik onena Plazentzia-Maltzaga ingurua zen. Ibaiaren alde batetik bestera sarea bota eta asko harrapatzen zen. Sare horri "txingia" deitzen zitzaion. Esparbelarekin ere aritzen ziren. Horretan ezagunena "Ferruel" zen.</p>

Transkripzioa

- Eta zuek, orduan, erreka ezautuko zenduen dana libre eta...
- Bartolo: Oin badaok, ba, bozeria? Han bozerian kontra joian erreka lehen.
- Agustin: Indianokuan zerian eitten juan pare, tope.
- B: Gu gaztiak igarixan be einda gauazak hor gaztiak giñanian. Bolerian aurrian, bai.
- Bai, e? Ur asko zeuan?
- B: Errekia pasatzen zuan, ta [gerua gehixao] pixkat geldia eitten [juan] ta potzua jeuan han.
- Ariatzan?
- B: Ariatza esaten jakuan hari.
- A: Zelan dok hau, zera, Danelen-ta soziua...?
- B: Zera, Enrike? Franko?
- A: Ez, bestia.
- B: Bestia Sologaiztua.
- A: Sologaiztuak hor amorraiñak mordua hartzen jittuan. Gogorra zan ha peskan. Ointxe be bai, itsasuan be ibiltzen dok, baiña... Gaztetan ha gogorra. Ta amorraiñak hor...!
- B: Gerraostian harrapatuko jittuan.
- A: Gerra aurrian be bai.
- B: Gerra aurrian be bai, e?
- A: Gerra aurrian be bai. Mutikua ta gerra aurrian be bai.
- B: Gerra aurrian hau garbixa zuan ba erreka hemen.
- A: Bueno! Hemen zarbo-ezkailluak [...].
- B: Bai, bai, arraiña asko euan hemen. Gero zikintzen juan zuan erreka. Zikiña botatzen ta...
- A: Bai, gerraostian be amorraiñak oindio egongo zittuan.
- B: Hemen amorraiñak gerraostian badakik nun zian mordua? [...aneko]

zubixa baeuan ba? Han zubixan potzua eitten zuan. Amorraiañak. Gerra denporan iñok be ez juan /etxuan/ peskan ein ta amorraiañak gehittu ein zittuan errekan!

- A: Bai, bai, fabrikarik be ez zuan egon [...].

- Ez, ez, garbi errekoa, garbi-garbi-garbi.

- Eta zuek peskan-eta eitten zenduen?

- B: Guk ez, gu ez giñuan horko maillakuak.

- Baiña mutikotan...?

- A: Bai, Txontan zarbu-ezkailluak edo Txontan...

- B: "Agorra eittia" esaten jakuan. Agorra. Agorra izaten zuan ezkailluak-eta harrapatzeko, ba, ura albora bota eta potzuan preso hartu ezkailluak mordua ta gero haretzek harrapau gero sariakin hantxe potzua einda. Agorra ein, ura etaratzen juan gero. Potzua ein ta gero ura etaratzen juan ta gero arraiña harrapau. "Agorrian" esaten jakuan horri.

- Zarbo-ezkailluak harrapatzeko zan hori?

- B: Ta loiñak be bai. Amorraiañak-eta, amorraiañak-eta harek ospa eitten juen, bizkorrauak zittuan, baiña bestiak inguruan ibiltzen zittuan. Barguak izaten zittuan, ba, haundixauak; barguak honenbeste ingurukuak be bai. Ta loiñak, ba, holakotxiak. Ezkailluak eurak izango zittuan harek haundi einda. "Loiñak" esaten jakuen; izaten zittuan honenbeste ingurukuak, gaurko sardiñen tamaiño ingurukuak edo. Baiña "loiñak" esaten jakuen.

- Nun harrapatzen zian horrek?

- B: Horrek...

- A: Hamen darian. Ta Plaentxiako errekoa [...].

- B: Hori Plaentxiatik Maltzagara bittartian...

- A: Erreka baztarretik bestekaldera "txingia" esaten jakon zer bat...

- B: Saria ipini batetik bestera.

- A: ... batetik bestera. Ta gero aldia bixetatik harrixa bota ta...

- B: Astindu, mobidu ta arraiñari juan erain hara.

- A: ... bota ta xertu ta han sartuta gelditzen darian...

- B: Sare estua zela izaten dan, sartzen zittuan ta "trak!" bertan geratu engantxauta.

- Eta hori zeintzuk eitten zebe, plaentxiarrak? Hala hamendik be bai?

- A: Ba, hamenguak be bai. Saria ekanak.

- B: Bai, Eibarren be baeuazen.

- Eta esan dozue "txingia" zala hori?

- A: "Txingia" esaten jakon, bai.

- Sariari esaten jakon?

- A: Bai, sariari "txingia" esaten [getsau], punta batetik bestera.

- B: Ta esprabela zuan beste bat.

- A: Asko juaten zuan eta eurak be dedikatzen zittuan harrapatzera Maltzagako tabernia, han taberna bat egon zuan Maltzagan zubixa pasau ta gero eskumatara...

- B: Plaentzia alderako trenbide onduan.

- A: Oin [ez jakixat /etxakixat/] egongo dan ha tabernia, etxia egongo dok, seguramente, zubixa pasau ta eskumatara. Ta holan zer bat. Erromerixia be eitten zuan, gaiñera.

- B: Bai, domeketan erromerixia.

- A: Eitten zuan loiña-jana enjeneral hantxe. Han beti egoten zuan.

- B: Ta esprabelakin hori, "Ferruel" zuan gogorra. Harek... arraiña asko, ezta? Zera eitten juan harek: sare bat botatzen juan, "braaa!", ta "brra!" batu gero, itxi gero, ta barruan arrain mordua ekarten juan harek. Maixua zuan ha, "Ferruel":

- "Ferruel"?

- "Ferruel" jekan gaitzizena.

40. Eibarko igerilekuak: Matsaria, Barrenazarra, Maltzaga, Areatza...

- **Erref:** EIB-026/005
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Eibarren hainbat tokitan zegoen igeri egiteko aukera: Matsarian, Maltzagan, Barrenazarrean,... Kakalardokuan (Alfa alboan) igerilekua ere egin zuten 1930 inguruan. Horixe izan zen Eibarko lehenengo igerilekua. Bartolok eta Agustinek ez zuten erabili, ordurako nagusi samarrak zirelako. Bartolo gehienbat Maltzagara eta Barrenazarrera joaten zen (gaur egungo Barrena kalean). Areatzan ere bai (Indianokua jauregi ondoan).

41. Indianokoa jauregia eta Pantaleon zaintzailea

- **Erref:** EIB-026/006
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:12:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Indianokoa jauregian Iraolagoitia familia bizi izan da. Gaur egun Aldapatxo dagoen tokian. Etxe ederra zen, armarri eta guzti. Barrutik ere oso ederra zen. Atzeko aldean, Ardantza alderantz, ortu zabalak zituen. Ortuen zaintzailea Pantaleon zen, Debatik etorritako gizon bat. Bera zen jauregiaren baratz eta lurren zaintzailea. Pantaleonen etxea trenbide ondoan zegoen, Ardantzan.

42. Trenbidea eraiki zenekoa

- **Erref:** EIB-026/007
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

<p>Trenbidea 1905 inguruan heldu zen Eibarrera. Donostiatik Bilborako trenbidearen inguruko anekdotak kontatzen ditu. Trena Ermura nola iritsi zen ere aipatzen dute.</p>

43. Maltzagan igerian eta trenbidetik jauzi egiten

- **Erref:** EIB-026/008
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:16:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Igeri egiteko lekurik onena Maltzaga zen. Ausartenek trenbidetik egiten zuten salto, hango baranda gainetik. Ibaiak sakonera handia zeukan han, trenbide azpian.

44. Debako hondartza, baineroak eta bainujantziak

- **Erref:** EIB-026/009
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:16:15. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>Bartolo Mendaron jaio zen eta hantxe bizi izan zen zazpi urte bete arte. Handik Debara joaten ziren hondartzara; Arrate egunean joaten ziren, eibartarrik ez zelako egoten. Hondartza guztietan baineroak egoten ziren, itsasoan bainua hartzen laguntzen zutenak. Hondartzan egurrezko kaxetak ere egoten ziren, arropak aldatzeko. Gorpildunak izaten ziren, udan atera eta neguan gordetzeko. Hondartzara joateko "taparroiak" erabiltzen zituzten, bainujantzi modukoak. Eta andrakumeak goitik behera jantzita.</p>

45. Barrenkaleko merkatu zaharra eta arraindunak

- **Erref:** EIB-026/011
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Udaletxea 1900 inguruan eraiki zen. Ordura arte erreka osoa libre zegoen. Orduan hasi ziren estaltzen; besteak beste, Barrenkale ondoko merkatu plaza ere erreka gainean eraiki zen. Azoka ederra zen, handia. Behean arraindunak egoten ziren eta goian baserritarrak.

46. Arraindunak kalerik kale saltzen

- **Erref:** EIB-026/013
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Garai batean, arraindunak 11ak arte azokan egoten ziren, baina hortik aurrera baimena zeukaten kalerik kale saltzeko. Elizan 11ak jo orduko arraindunak orroka hasten ziren arraina saltzen. Baita angulak ere, Sasiolatik ekarrita. Antxoa sasoian merke-merke saltzen ziren. Izan ere, batzuetan ongarri moduan ere erabiltzen ziren antxoak, larregi harrapatzen zelako. Orduan ez zegoen modurik janaria freskotan gordetzeko eta egunean jan behar zen.</p>

Transkripzioa

-Bartolo: Arraindunak urtetzen juen, plazan egoten zittuan, ta hamaiketan urtetzen juen kalia saltzera.

-Agustin: Bai, bai, kalerik kale.

-B: Bai, hamaiketan. Ta ipintzen... jekezen zestuak, ba arrain zestuak. Azalak izaten... haxe altura inguruau eukitzen eben, baiña hamen kerten bat eta han kerten bat ta luzia. Bi arraindun izaten zittuan. Bai, bi arraindun urtetzen juen. Ta hamaiketan jeken ordenia, hamaikak arte ezin jua urten iñok be. Ta egoten zittuazen zestokariakin preparauta andra bixok han Ariatzako aurrian, ta torrian hasten zian hamaikak jotzen, ekitzen etsen orruaz, batzuk juaten zittuan Untzagarutz ta beste batzuek berutz. Arraiñak, saltzailliak.

-Kalerik kale?

-B: Bai, kalerik kale. Bai, bai.

-A: Guk ezautu juau angulia, kalia saltzen, etorrita zera. Ta probatzeko eskukaria, "probaizu, fresko-freskuak dia ta probaizu", juari oin.

-B: Ene! Muñoan suegria Sasiolakua zuan, gure lagun bat, Jesusen zera, Muñoana. Ta entzutia dakat nik. Harek angulekin etorri Eibarrera saltzera. Bost errial kilua, ta saldu barik eruan zittuala barriro etxera.

-Anguleruak-eta nundik etortzen zian? Mendaro ingurutik?

-B: Mendarotik Debara bittartian. Hor erreka aldera sartzen dok ba angulia.

-Eta esan dozue arraindunak-eta kalerik kale orduan?

-B: Kalerik kale, bai.

-Eta, orruka?

-A: Orruaz.

-A: "Sardiña freskuak", "sardiña freskuak".

-B: Ta beste gauza bat pasatzen zuan. Hori akordauko haiz heu horrekin. Orduan, antxoa sasoian, antxoak be asko hartzen jittuen igual, ta saldu ezin, ta orrua: "Errialian platerkaria!", ta jua ta errial bat emon ta platera bete-bete einda antxoaz etxera. Bestela harek bota ein bihar jittuen ba. Errialian platerkaria.

-A: Ezaututa gare gure denporan, hori antxobia, hainbeste hartzen juen eze, saldu ezin, ta simor moduan mendixan bota.

-B: Usteldu, bai, abonua, bai. Ongarri moduan lurrera.

-Basarritarrak?

-B: Joari oin. Orduan ez jeuan, konserbarik be ez jeuan, konserbatzekorik ez jeuan /etxeuan/ orduan. Orduan batzuek konserbatzen juen eurak etxian, zerakin, hori latetan ipintzen jittuen, garbittu, tripak eta dena kendu ta gero bota ta gatzakin tapau. Ta tapau, ta hiru edo lau tapa ipini ta gero haretzek bere sasoian etara ta, ba, olixua bota gaiñera, ta haretzek jan.

-Urte guztian?

-A: Orduan epokan frigorifikuan lekuan, zera izaten zuan, freskeria.

-B: Freskeria ekan izena.

-A: Kanpuan ipini ta...

-Leihuan?

- A: Bai, leihuan ipini ta...

-B: Ni ezkondu nitzuan berrogeta bostian. Ba ni ezkondu nitzan andrian etxian hantxe jeuan freskeria erreka aldera, Txisperuaneko... zubixa badaok ba? Arikixaneko zubixa esaten detsagu ba? Haretxen ondoko peoran bizi nitzuan ni, orduan andria ta han bizi zittuan ta. Haren ostakaldera jekaun. Kumuneko... kumun haundi bat zuan ta sartu kumunera, ta "rraa!" zabaldu freskerako atiori, ta hartu bihar dana ta... zeoze!

- Haxe zan. Konserbarako horixe.

- B: Bapez baiño gehixao, baiña asko gehixao be ez!

47. Bidebarrietako zubiak: Trokaola, Otxoa, Norbertotxo, Arikitxa, Pedroman eta Urkizu

- **Erref:** EIB-026/014
- **Iraupena:** 0:05:55. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:32:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Bidebarrietako zubiak: lehenengo Trokaolanekoa, oinezkoa (gaur egun San Agustin ingurua); ondoren Otxoaneko zubia, lantegi baterako sarrera; gero Norbertotxonekua, hori ere oinezkoena; eta amaitzeko Arikixaneko zubia. Azken hori zen benetako zubi bakarra. Eta beherago Pedromaneko zubia, hori ere oinezkoa (Urkizu hasieran) eta gero Urkuzuko zubia (Agiñaspi parean). Azken hori zen denetan handiena. Arikixaneko zubi ondoan labaderoa ere bazegoen, arropa garbitzeko harlauzak. "Arotz-haundixaneko" presatik hartzen zuen ura.

48. Eibarko lantegiek urari zor diote dena

- **Erref:** EIB-026/015
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:32:55. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Eibarren ur asko egon da beti eta horregatik egon dira lantegi asko. Lehen ez zegoen argindarrik eta ura behar zen makinak mugiarazteko. Gero, argindarra agertu zenean, lantegiak edozein tokitan jartzeko aukera etorri zen, baina langilerik onenak Eibarren zeudenez, bertan jarraitu zuten. Eibarko industriaren zuztarra errekan dago. Lantegiak jartzeko leku hobeak ere bazeuden, Durangon esate baterako, baina Eibarko "gatza" falta!

49. Ixu Eguna eta ur bedeingatua

- **Erref:** EIB-040/002

- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:00:20. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Aste Santuan "Ixu Eguna" izaten zen. Su eta ur bedeinkatua hartzen zen elizan eta etxerik etxe banatzen zen. Ixua egur ihartua da. Umeak ixu zati batekin joaten ziren elizara, su berri bedeinkatua hartu eta etxerik etxe banatzen zen. Eta ur bedeinkatua ere banatzen zen. Ur bedeinkatu hori gero etxeetan gordetzen zen eta gaixoekin erabiltzen zen. Sua eta ura parrokia barruan bedeinkatzen ziren.</p>

50. San Blas eguneko bedeinkapenak parrokian

- **Erref:** EIB-040/003
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Blas

Laburpena:

<p>San Blas etako tipikoa opilak eta hariak dira. Eztarrian jartzen diren hariak. Haria astebetean erabiltzen zen eta gero sutara bidali. San Blas egunean meza izaten zen parrokian. Hariak, opilak eta frutak bedeinkatzen ziren. Bartolok eta Agustinek San Andres parrokian ezagutu dute beti, baina lehenago Santa Ines elizan izaten ziren mezak eta bedeinkapenak. Sanblas opilak bi motatakoak ziren, bata oraingo opilen estilokoak, eta besteak ogiz egindakoak, gainean ezia, arrautzak eta frutak zituztela.</p>

51. San Andres Eguna ez zen jai izaten

- **Erref:** EIB-040/004
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>San Andres Egunak gorabehera handiak izan ditu. Garai batzuetan jai egin izan da, baina beste batzuetan laneguna zen. EAJk jai nahi izaten zuen, eta, azken urteotan, azoka handia ere badago. Baina Bartoloren gazte denboran, ez zen ezer izaten. Eibarko patroia zela, baina ez zen ezer berezirik ospatzen.</p>

52. Eibarko lehenengo abertzaleak eta batzokiak

- **Erref:** EIB-040/005
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:09:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

Eibarko lehengo batzokian, Errebal kalekoan, frontoia eta antzokia zeuden. Baita lehenagoko batzokian ere, Bidebarrieta kalean. Garai hartan abertzaleei "bizkaitarrak" esaten zitzaien.

53. Eibarren sozialistak eta errepublikazaleak nagusi; abertzale bakarra udaletxean

- **Erref:** EIB-040/006
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:09:55. **Bukatu:** 00:11:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

1920-1930 inguruan oso abertzale gutxi zegoen Eibarren; gehienak sozialistak eta errepublikazaleak ziren (19 zinegotzitik 18). Abertzale bakarra zegoen udaletxean, Joakin Elorza. Sozialistak ziren nagusi eta errepublikazaleak ere asko ziren (Eulogio Garate, Mateo Kareaga, Bustinduitarrak...). Errepublikazaleen lokala Txiriokaleko lehenengo etxean zegoen (gaur egun Dardai soziedadea).

54. Billar mahaiak Eibarko taberna gehienetan

- **Erref:** EIB-040/007
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:12:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Garai hartan elkarte eta egoitza guztietan billarra izaten zen: Casinoan, Modernoan, Salon Crucetan, alderdien egoitzetan (Errepublikazalean, Casa del Pueblon...), Rialtoan,... Hori bai, beti hiru bolako billarra; zulodunik ez. Txapelketak ere izaten ziren.

55. Lehenengo Aberri Eguna eta alderdien arteko liskarrak

- **Erref:** EIB-040/008
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:12:35. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Bidebarrietako batzokia txikia zen. Etxe bateko lehenengo solairua. Bartolok lehenengo Aberri Eguna gogoratzen du. Egun horretan sozialistak batzokira

sartu eta ikurrina Untzagan erre egin zuten. Abertzaleen eta sozialisten arten sarri izaten ziren liskarrak. Abertzaleak askoz gutxiago ziren eta "hartzea" egokitzen zitzairen. Abertzaleen artean Satur Olariaga zen ezagunena. Bere arreba Matea ere ezaguna zen, taberna zeukalako.

56. "Perderreneko" sutea izan zenekoa

- **Erref:** EIB-040/009
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Ibarkurutzeko "Perderrenian" sutea izan zen egun batean (Garatetarren etxea). Kartutxoak saltzen zituzten bertan. Zigarro baten erruz su hartu omen zuen bai dendak eta bai etxe osoak. Azkenengo solairuan Matea Olariaga bizi zen; bosgarren solairutik salto egin behar izan zuen eta bizirik irten. Ordutik aurrera, bizitzako kontu guztiak lasaitasun osoz hartzen omen zituen. Beste batzuek aizkora batekin zuloa egin eta teilatura irten zuten.

57. Eibarren 4-5 etxe bakarrik ziren porlanezkoak

- **Erref:** EIB-040/010
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:19:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Etterik gehienak egurrezkoak ziren. Gerra aurretik 2-3 etxe bakarrik ziren zementozkoak: Banco Guipuzcoano, Gautxorineko etxeak Untzagan, Ciriaco Agirre medikuaren etxea parrokiaren aurka eta besteren bat. Udaletxea ere zementuzkoa zen (Eibarko lehenengoa).

58. Eibarko suhiltzaileak

- **Erref:** EIB-040/011
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:22:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Etterik gehienak egurrezkoak ziren eta suteak sarri gertatzen ziren. Tximinia inguruak larregi berotu eta suteak berehala hasten ziren. Suhiltzaileak ere baziren garai hartan. Hainbat lan egiten zituzten, baita hildakoen gorpuak eramane ere (seniderik ez zenean). Suhiltzaileen egoitza Kontsejuzarrean zegoen, parrokia parean. Beheko solairuan, sartu eta eskuinera. Hasiera-hasieran ez zeukaten ezta materialik ere. Eskailera berria ekarri zutenean aurrerakada handia izan zen, Magirus frantses bat.

59. Kontsejuzarra: suhiltzaileak, aguazilak eta dibujo-eskola

- **Erref:** EIB-040/012
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:22:35. **Bukatu:** 00:25:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

<p>Kontsejuzarrean hainbat kontu biltzen ziren: suhiltzaileak, marrazki-eskola, aguazilen egokitza... Sarreran arkupe bat zeukan eta Eibarko kalabozoa ere bertan zegoen, aguazilen alboan. Goiko solairuan dibujo-eskola zegoen (hainbat irakasle zeuden, Olabe, Artamendi, Zulaika... Eibarren ume askok ikasten zuten dibujoa, armagintzarako eta grabaturako garrantzitsua zelako.</p>

60. Eibarko umeak arma artean lanean

- **Erref:** EIB-040/013
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:25:25. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Bartolo 11 urterekin hasi zen lanean. Garai hartan arrunta zen hori, umeak gazte-gazterik lanean hastera. Umerik gehienek arma-lantegietan egiten zuten lan eta anekdota deigarriak gertatzen ziren, sarri ikusten zirelako ume txikiak armaz josita Eibarko kaleetan.

61. Gerraostean preso egon zen hainbat hilabetez

- **Erref:** EIB-045/001
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:00:15. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra osoa igaro zuen. Gero, kartzelan, kontzentrazio-esparruan. Ondoren, Toledoko lantegi batean lanean jardun zuen eta handik Mirandara bidali zuten. 2-3 egun Mirandan egin ondoren, trintxerak egitera bidali zuten Elizondo ingurura. Han zegoela, ofizial batek arma bat eman zion konpontzeko eta Eibarrera itzuli zen egun batzuetarako (hainbat hilabetez Eibartik kanpo egon ondoren). Deustun beste 6 hilabete egin zituen, hango kartzelan. Hori guztiori igaro ondoren, duela urte batzuk kalte-ordainak jasotzeko ordua iritsi zenean, Agustini ez zioten kalte-ordainik eman nahi izan.</p>

62. Gerran denuntzia asko herritarren artean

- **Erref:** EIB-045/002
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Gerra garaian, denuntzia asko egon ziren herritarren artean. Gaizki-ikusiak eta zorrak tarteko, denuntzia asko izan ziren, gehienetan oinarririk gabeak.

63. Batallón de Trabajadores

- **Erref:** EIB-045/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Eibarren ere izan ziren "trabajadoreak" (Batallón de trabajadoresekoak). Azitaingo jauregian bizi ziren. Agustin Irunen izan zen trintxerak egiten. Bidebarrieta-Errebal inguruko etxe guztiak trabajadoreek egin zuten.

64. Isasiko mojan zaindu zituen gerran

- **Erref:** EIB-045/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra hasi zenean egun batzuk Isasiko komentuan igaro zituen, hango mojak zaintzen (badaezpada). Mojak ebakutzeko orduan ere, Agustinek eraman zituen Zeanurira.

65. Loiola batailoia

- **Erref:** EIB-045/006
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Loiola batailoiaaren lehenengo erasoak San Andres egun batean izan zen, Legution. Handik aurrera, "beti atzerutz!". Loiola batailoian eibartar asko zegoen; burua ere eibartarra zen, Beistegi.

66. Gerra hasi zeneko giroa

- **Erref:** EIB-046/002
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:00:20. **Bukatu:** 00:02:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Elgoibarren zeuden gerra hasi zenean, lanean. Larunbata zen. Francon aldekoek, buru zirenek, besteek baino informazio gehiago zuten eta Lizarrako trena hartu eta alde egin zuten; bazekiten gerra zetorrela. Besteek ez zekiten zer ari zen gertatzen. Hasi zen gerra berotzen. Batailoiak geroago sortu ziren. San Andres Egunerako batailoiak eratu ziren. Beraien batailoia Mundakan zegoen eta Orduñara eraman zituzten geroago.</p>

Transkripzioa

-Proklamaziñua, gerria, zela enterau ziñazien?

-Agustin: Elgoibarren genden gerria hasi zanian.

-Biharrian egongo ziñaten?

-A: Klaro.

-Bartolo: Zapatua izan zuan. Zapatu bat izan zuan hori. Batzuek Eibartik gero nausi izan zienak Francon aldekuak Zapatu eguardixan trena hartu eta alde ein juen batzuek. Nik ezautu nittuan batzuek alabia zeken, Abalosen zeken alabia pleuresia pasau ta ondoezik. Haren gurasuak eguardiko trena hartu ta orduan Estellaraiño zeon ba trena hemendik, Eibartik, joan ein zian eta akabo, harek han geratu zian, librau ein zian. Bestela harek Mobimentoko organizadoriak zian ba eurak.

-Eurak bazekixen orduan bazetorrela.

-B: Harek bazekixen. Noiz ez baiña, eguna egunak ez, baiña bestela bai bai. Gertatzen zebitzen eurak eta.

-Eta zeuek?

-B: Gu etxian hementxe Eibarren. Zeoze pasatzen zala. Gauza garbirik ez ba iñok.

-Eta enterau jentia esanda edo radixua edo?

-B: Gero bai, gero mobimentua hasi zan. Bata ta bestia, aiutamentuak eta. Mobimentuan hasieria [...] ze pasau biha zan, iñok ez zekixen hasieran ze urtengo zaban. Horrek eukitzen dabe hasieria jakiña baiña azkena ezta jakitzen. Noiz izango dan be ez ta. Hasieria hola izan zan. Iñok ez zekixan ezer, eta hau ta bestia, militarrek han mobidu ein ziala eta bestian preso hartu zittuela ta, hasi zan gauzia berotzen. Gero akabo.

-Eta batailloiak eta?

-A: Batailloiak gero formau zian, gero formau zian, berandu formau zian batailloiak. Lelengo hamen ibilli zan jentia ahal dan moruan.

-B: Agostua be pasauko zuan hurren baten.

-A: Beranduao. San Andres egunian...

-B: San Andres egunerako ia urtenda euazen batailloiak.

-A: Agosto, agosto... Setienbre inguruan formauko zuan Gernikan batailloia.

-B: San Andresetan ni gogoratzen naiz, gu Mundakan geuazen, Mundakan gure batailloia, eta Durangora etorri giñazen, eta Durangotik beste batzuek pasau zian ba Billarreal hartzera. Billarreak militarrek militar [...]. Gure batailloia eruan juen Orduñara.

67. Villareal herrira 15.000 soldadu

- **Erref:** EIB-046/003
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:02:42. **Bukatu:** 00:03:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Espainiako Villarrealera 15.000 soldadu bidali zituzten Euskal Herritik eta inguruetatik, baina ez zuen balio izan. Bertan zeuden Guardia Zibilak, lauzpabost, profesionalak ziren; eta, dorretxetik, metraileta batekin egin zieten eraso. Gainera, lautadak ziren bertan eta ez zuten aukerarik izan aurrera egiteko. Bertan gelditu zen frontea. Albertia mendian pasatu zituzten Gabon batzuk, mendi punta zuritu batean.</p>

Transkripzioa

-Agustin: Hori Billarrealkuoi dok, bueno-bueno, desastre padre. Hamabost milla lagun ero joango giñan gu, eztakit zenbat batailloi, sei edo zortzi batailloi edo. Eta erek Billarrearen eren blokau baten lau bat guardia zibill egongo zian-da. Da torrian ametrallador bat soldau bikin, soldau bikin.
-Bartolo: Hainbeste jente bestekaldetik baiña alperrik.
-A: Hamar metro ez genduan luzetu, hartu ez herrixa, hartu ez.
-B: Harek han zeozenak ofiziokuak eta hor zoiazenak danak nobatuak esaten dana.
-A: Paraje laua zelan zan, gaiñera, ametrailladorak torretik tarrarraaa ta.
-B: Otxandixo aldetik Billarreal alderakua lau dok.
-A: Gu barriz [tekun!] sekula tirua entzun bakuak eta jota...
-Hanka.
-A: Baiña gero hantxe egon giñan.
-B: Geldittu ein zan frentia bertan.
-A: Gabonak Albertia puntan pasau najittuan nik edurrakin, edur galantakin. Albertia daok mendi bat zeretik han Bitorixako punta baten.
-Zu Loiola Batailloian ibilli ziñan?
-A: Loiolan, bai.

68. Ertzain ordu batzuetan

- **Erref:** EIB-046/004
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:03:58. **Bukatu:** 00:05:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Ordu batzuetan ertzainak izan ziren. Bilbon ziren eta hurrengo egunean lanera joateko deitu zieten. Momentu horretan Bilbo bonbardatu zuten Francoren batailloiek.

Transkripzioa

-Eta esan zestazun ordu batzuetan ertzaiña be izan ziñala, ezta?
-Agustin: Nik, ertzaiñara joan giñan esamiñatzera. Esamiñau giñan eta esan eskuen bueno, bixar etorri uniformia hartzera.

-Bartolo: Uniformia hartzera ia ontzat emonda.
 -Bilbora?
 -A: Bilbon, Bilbon genden. Hotel baten genden gu eta esan detsudana, zereko asaltua ikusi neban nik, Larrinagakua.
 -B: Baiña horrek atrasku horrek hasieria badakak. Francon abioiak etorri eta Bilbo bonbardeau eben. Eta gero alde ein zebeñian abioiak ba jentia karzeletara preso zeozenak e...
 -A: Zera hil juen, pilotua hil juen. Pilotua hil juen, egun guztian, egun guztia erabili pilotua Bilbon bueltaka.
 -Kalerik kale.
 -A: Kalerik kale. Ta berotuta euan jentia, ta Larrinagako kartzelia, baiña joango zian, hamabost milla lagun joango zian, ha asaltau eben da danak hil zittuen.
 -B: Barruan zeozen danak hil zittuen.
 -A: Eta nik ha ikusi nebanian, ha kasua ikusi nebanian, esan netsan ze; atzera frentera. Eta komandiak esan estan: "Hi zetara hator?", "Fari heu nahi bok han, nik ez juak nahi harek ikusterik, nahixo juat frentian ibiltzia". Eta gero frentian pasau genduan Limpiasera arte. Beti atzerutz baiña, e, aurrerutz sekula bez.
 -B: Beti aurreruzka baiña atzerago. Atzera behin bez, beti aurreruzka.

69. Hamar lagun Isasiko komentua zaintzen

- **Erref:** EIB-046/006
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Batailloiak sortu aurretik, Eibarrek normal iraun zuen. Hamar lagunek Isasiko komentua zaintzen zuten. Hiru moja erretiratu ziren baserri batera. Gertaera bat kontatzen du.</p>

Transkripzioa

-Batailloia formau baiño lehenago...
 -Bartolo: Hau ibilli zan.
 -Agustin: Esan netsun ba. Lelengo egon giñan hamen konbentuan. Eibar normala izan zan gerra denporan. Hamen ez eben elixarik atakau ta monjarik eta fraillerik eta abaderik eta iñobe ez eben atakau hamen. Hamen normala izan zan. Baiña konbentua zaintzen egoten giñan gu hamar lagun edo, lelenguan bost bat zerian da. Isasiko konbentua. Da akordatzen jatak gauza bat: hiru monja neuk erretirau nittuan zeera, Zeanurikua zan bat, monja bat, eta beste lagun bikin hiru haraxe [basarrira?] eruan nittuan. Eta hainbeste urte hartu dotenian akordatzen jatak, harek monjak esan esten: "Ya rezaremos por tí".
 -B: Itxuria errezau juen eta balio...

70. Karakatera telefono haria igo zutenekoa

- **Erref:** EIB-046/007
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Karakate mendira telefono haria igo zuten, horrela, hegazkinak noiz zetozen abisua eman ahal izateko. Eibarren Telefonica zegoen; indartsua zen, gainera. Gipuzkoa izan zen telefono-haria zabaldu zuen lehen lurraldea. Zuhaitz batetik bestera haria lotu eta Karakateraino igo zuten telefonoa. Gaua pasatzea tokatzen bazitzaien, goizaldeko ihintza aprobetxatu, eta garo artean hartzen zuten dutxa.</p>

Transkripzioa

-Agustin: Gero Karakatera linea ipiñi genduan guk, argixa, zera, telefonua.
-Bartolo: [Maltzaga] gaiñian badaok pa Karakate.
-Agustin: Telefonua ipiñi genduan guk hara. Abioia entzutzen genduanian telefonua zentralera. Eta honek [...] kanpaiak jotzen zittuen.
-B: Kanpaiak jotzen zittuen orduan abioiak bazetozela aitzen emoteko.
-Drauna?
-A: Drauna ta.
-Telefonua zela igo zenduen? Harixa goraiño?
-A: Harixa goraiño. Orduan euan, Eibarren euan harixa eta telefonikako asuntua euan, almagaznak baiña terribliak eren. Orduan usten dot Gipuzkuan ipiñi zala lelengo telefonua.
-B: Telefonua Españako probintzia Gipuzkua izan zuan lelana bera. Diputaziñuana zan telefonikia ta.
-Eta Eibarren be bazeuan telefonikia?
-A: Eibarren elemento asko euan telefonikakua eta lineia botatzeko. Baitta hamar linea be botako genduzen hor [elementuekin].
-Harixa hartu eta...
-A: Bai ba, arboletan lotu ta goraiño.
-Eta? Han ze? Hiru-lau lagun alkartzen ziñazien?
-A: Bai, txabola ba ein genduan da han egoten giñan. Abioia etorrenian ba telefonoua jo ta akabo. Eta ez euanian ezer eta euri pixka edo nahiz ta egualdi ona egon, garua bakizu zer dan garua? Garua holako, gu baiño altuao izaten zan, da goixian ohetik jaikitzen giñanian hantxe hartzen genduan dutxia. Garo artian joan eta ri-ra-ri-ra! Hantxe hartzen genduan dutxia intzakin.
-Intza, intza.

71. Eguraldi lainotua hobe

- **Erref:** EIB-046/008
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:08:28. **Bukatu:** 00:09:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Eguraldiari asko begiratzen zioten. Lainotuta zegoenean, ez ziren hegazkinak etortzen. "Vía trimotor" deitzen zitzaion zeruari eguraldia garbi ikusten zenean (hiru motor zituztelako etsaien hegazkinak). Eibar alemanek bonbardatzen zuten normalean. Hegazkin motak aipatzen ditu. Durango bonbardatu zutenak hegazkin italiarrak izan ziren.

Transkripzioa

-Eta egualdixari be begiratzen jakon, ez, egualdixa abioiak eta..?

-Agustin: Egualdixa frentian egon gendenian laiñotsua nahi izaten genduan egon zeññ, abioirik ez zeññ etorri. Laiño [antzian]. Egualdixa be onakin txarra.

-B: Harek gerrako lelengo urtiak ein zebana horixe izan zuan: laiñorik ez! Laiño gitxi. Edurra, honek esan dau, ezta, hasieran, baiña gero gehixao ez zeban eiñ negu guztian. Beti beti garbi, beti garbi. Izena ipiñi jakon: "Día trimotor". Hiru motorrekuak zian ba orduan etortzen zianak botatzera. "Día trimotor" esaten jakuan garbi ikusten zanian egualdixa. Goiz-goizian akabo.

-Badatoz. Hamen Eibarren eta bonbardeatzen zebenak ze zian, italianuak ero alemanak ero?

-A: Alemana, alemanak.

-B: Bonbarderuak alemanak. Italianuak pe egon zittuan. Durango bonbardeau zebenak italianuak zittuan, Saboia zittuan. Alemanak, berriz, bixak, Stuck-ak eta Mezerrezmitak (Messerschmitt). Mezerrezmitak zian kazak, eta bestiak zian bonbarderuak

72. Eibar bonbardatu zuten

- **Erref:** EIB-046/010
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Eibar ere bonbardatu zuten. GAC lantegiak armak egiten zituen eta hura bonbardatzera joan ziren hegazkinak. Ondoko etxeke bateko alabak besoa galdu zuen. Untzaga ingurua beranduago bonbardatu zuten, ia gerra bukatzeaz zegoela. Ehunka eibartar hil zituzten. Kerizpe elkartea dagoen etxea egiten ari ziren, Untzaga plazan. Udaletxea ere bonbardatu zuten.</p>

Transkripzioa

-Eibarren egon ziran, ezta, bonbardeo batzuk?

-Agustin: Bai. Lelenguo bonbardeau eben Eibar da hill ez zuan in iñor baiña.

-Bartolo: Bai, Ibarkurutxian hil zuan zerekua, loterixetako mutilla. Ruperto pelukeruak hankia kendu otsanian.

-A: Beste neska bati besua kendu etsan.

-B: Juaniton alabiari, gure lagun baten alabiari besua. Baiña hori zan oin Mendiguren y Zarraoa egondako taillarra Arraguetan. Han zera zeuan, taillarra zeuan orduan GACiana, eta GACiak itten zittuan armak, GACia

bonbardeatzera joan zian, da GACen beste kalia zeon hori neska hori refujixua ekan etxeko sotanuan sartuta. Eta hango borbardeo zatixak besua kendu etsan. Erreka bittartetik.

-Arikittanian?

-B: Arikittaneko zubixan onduan. Oin etxia erdi inda badaok ba han, hasitta, han etxe bat jeuan, hiru pisoko etxe bat jeuan, etxe zahar bat. Da sotanuan, igeltserua aitta neskiana, eta harek jekan beran lanerako, gordetzeko leku hori. Da hantxe lekuan daoze la bonbarderuari igesi, albotik etorri metraillia ta besua kendu etsan.

-Eta gero Untzaga inguruan edo Egogaiñ inguruan eta be...

-A: Berandu.

-B: Geruao

-B: Ixa gerria amaittu eñian daola. Hor asko hil zian orduan, e. Refujixua euan ba han errekan ifinita, ha erreka azpira ta joaten zuan jentia. Eta jentez beteta daola bonbiak apurtu juan gaiña ta barrura sartu zuan. Eta ehun da [...] hil jittuan han eibartarrak. Ni bonbardeuan zerian egon nitzuan baten. Hor oin badaok pa soziedadia, zelan dok hori?

-Kerizpia?

-B: Kerizpian. Kerizpe onduan etxia eitten zeuan, armazoia dana einda zekan eta han sotanuan ipiñi zebe refujixua, ta hara sartzen giñazen eta geozela aiuntamentuari botatzen etsen bonbak. Aiuntamentuko plaza aurrian jotzen zittuanian bonbak pentsatzen genduan geure etxian gaiñera zetoze la han geuazanak, eta ha ez eben apurtu. Aiuntamentua dana zikindu zebe metraillaz. Gaur be holaxe dao aiuntamentua. Metrailliakin apurtuta. Han bertan jausi zian bonbak.

73. Gerrako babeslekuak Eibarren

- **Erref:** EIB-046/011
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:12:08. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Eibarko Udalak babesleku asko eraiki zituen herrian: Urkuzuko iturri atzekoa etxe azpian, Ibarkurutzen...</p>

Transkripzioa

-Aiuntamentuak Eibarren refujixuak ipiñi zittuan, ezta?

-Bartolo: Aiuntamentuak ez zeken refujixorik.

-Ez, baiña bestela, Eibarren hamar-hamabost toki zeren refujixuak.

-B: Refujixuak zeuazen bat, Beheko Parkia, han iturrirra badao ba, ha etxia einda zeuazen harek, eta han erreka eskilarak jarri zittuen egurrezkuak, han behera joaten giñan, etxe azpira sartu. Ha zan bat. Bestia horixe. Eta bestia oñ Ibarkurutzian badao ba Gipuzkuanua Bankua, hori etxe hori eitten zeuan, horrek izan zien Eibarren zementoko etxe onak itten hasi zianekuak. Han be refujixua egon zan.

-Holako tokixak hartu zittuen orduan?

-B: Segun nun harrapatzen zeban honen kanpai jotia nun harrapatzen zeban, ahal dan lekura.

-Zeuk abixau?

-Agustin: Guk abixau.

74. Karakate mendiko puntan, zaintza lanetan

- **Erref:** EIB-046/012
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:14:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Karakate mendian, hamabost bat lagun egoten ziren zaintza lanetan, txandaka. Karakatera egunean bi bider igotzen ziren orduan. Hegazkinak ikusten zituztenean, Karakatetik Telefonicara abisatzen zuten telefonoz, eta haiek dorrera pasatzen zuten abisua. Gero kanpaiak jotzen zituzten. Alarma izaten zen hori eta bakoitza ahal zen lekuan ezkutatzeko zen gero. Tailerretako sirenak ere jotzen ziren.

Transkripzioa

-Zenbat lagun egon ziñazien Karakaten?
-Agustin: Han egongo giñan, hamabost bat lagun egongo giñan baiña relebua itten genduan, e. Bost bat lagun egoten giñan gabian. Gau ta egun egoten giñan, bai. Orduan, oiñ Eibartik, etxetik hona kosta eitten jatak etortzia, ta orduan Karakate puntara Maltzatic bi bidar igotzen neban nik.
-Bartolo: Igo in biha da hara!
-A: Fronton Astelenan eitten eben bazkarixa danendako, miliziano guztiendako, eta harek ekartzen eskuen Maltzara, eta Maltzan hartu nik lepuan da gora. Egunian bi bidar hori. Oiñ hona etorri ezinda.
-B: Ezin sinistu noberak horrek ein dittuana be, sinistu ezin oiñ.
-Eta zeuek abixatzen zenduen telefonoz Maltzara?
-A: Ez. Guk telefonoz telefonikara.
-Eta telefonikatik?
-A: Torrera. Torrian egoten zian mutillak.
-B: Honek telefonikara eta [...] torrera. Eta kanpaik jotzen zianian ahal dabenak ahal dabena.
-Ze zan, kanpai haundixa izaten zan, drauna jotzen zan?
-B: Kanpai haundixa, bueltaka, din-daun, din-daun!, dana alarmia, ardurakua, eta ahal dan lekura, bakoitzak bere burua zaintzera.
-Sutia zanian moduan?
-B: Bai. Gero sirenia be egoten zan leku batzuetan, sirenak pe bai fabri..., taillarretako sirenak pe jotzen jittuen.
-A: Bai, bai. Orbeak eta.
-Orbeanian?
-A: Bai. Orbeak eta Beiztegik eta bajakazen orduan.
-B: BHiak be bai.

75. Eibarko arma-lantegiak

- **Erref:** EIB-046/013
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:14:37. **Bukatu:** 00:16:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Eibarren egiten ziren armek ez zuten gerrarako balio. Arma motak aipatzen ditu. Eibartarren fusil-fabrika Deustura eraman zuten; eta, geroago, Valentziara. Izan ere, frontea hurbilegi zegoen hemen. Horregatik daude hainbeste bikote valentziarren eta eibartarren artean. Gertaera bat kontatzen du.

Transkripzioa

-Hemen armak eta asko eitten zian eta gerria hasi eta berihala hasiko zian armak eitten frenterako?

-Agustin: Bai.

-Bartolo: Baiña Eibarko armak ez juen balio, berrogeta hamar metrora jaurtzen juen-ta.

-Pistolak-eta.

-B: Pistolak eta zerak pe bai, subfusillak be bai, Beiztegiak be eitten jittuan. Winchesterran kopixia eitten juan GACiak. Riflori.

-A: Horixe izan zan eibartarrak Valenziara joan zan, motibu hori izan zan. Hamengo fabrikia, fusil-fabrikia, hara eruen eben. Hamen frentia zela urrian euan, hara eruen eben.

-B: Deuston ipini juen Salesianuetan.

-A: Deuston bai, baiña Deustotik hara eruen eben zera. Horretxeaittik Ibarguren-da Emiliano Latorre-ta horrek han egon zian denpora askuan biharrian.

-Eibarko asko egon ziran, ezta?

-A: Bai, bai.

-B: Eibartar asko. Eibartarrak ezkondata be badauaz Valenziakuekin. Gizonak pe bai eta andrakumiak pe bai.

-Alberiquen edo zan?

-B: Buñol-ta Alberique-ta izan zian hemenguenak, hara joan zianak.

-Eibartarrak famia zeken orduan.

-A: Bai, bai.

-B: Ibarguren izan zan hango fabrikako, fusilgintzako fabrikako nausi. Hangotxe kaso bat kontauko dot nik, entzundako ipuiña da hau baiña. Hartu zebeñian Valenzia frankistak, hango fabrikako jefia, koronelen bat edo joan zan nausixarena, ia direktoria etorteko beragana. Ibarguren zan direktoria. Eta Ibarguren presentau zala. Ta Ibarguren zan ba hogeta lau bat, hogeta bi-hogeta hiru urteko mutil gaztia, aittua biharrian. Aber-ta. Ez, berak ez dabela mutikorik bihar, direktoria bihar dabela-ta. Bera zan. Hori kontatzen dabe han ibilli zianak, horixe pasau zala.

-Republikako fabrikarik inportantiena.

-B: Jose Ibarguren.

76. Abiazioa ikasitako soldaduak

- **Erref:** EIB-046/014
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:16:32. **Bukatu:** 00:17:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Abiaziora jende asko joan zen Eibartik. Eskolako jendea nahi zuten eta Eibarko Armagintza eskolako ikasleak bidali zituzten. Bonbak kargatzen zituzten haiek.

Transkripzioa

-Eta abiaziñora be asko joan zien, ezta, Eibarko...?

-Bartolo: Abiaziñora be bai. Geure lagunak pe joan zittuan, Alberto ta Gonzalo ta. Horrek eskatu zittuen mutillak, biharrian dakixen mutillak, eta Eskuela Armerixako direktoriak ein zeban itxuria bertan kursuak indako mutillak berak apartau eta haretzek joan zian. Hemen lana eindakuak, ofiziala eindakuak. Horretzek bialdu zittuen horra.

-Armak eta konpontzera eta abioiak?

-B: Abioien armen asuntua arreglau ta.

-Agustin: Gure lagunak Sarasuak esaten juan bonbak kargau eitten ebela eurak. Kargau, abioiei zerian ipini. Haxe misifiñua [...]

-Gonzalo Sarasua?

-B: Gonzalo Sarasua, bai, gure kuadrillakua.

77. Mirandako kontzentrazio-esparruan sei hilabete

- **Erref:** EIB-046/016
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:17:53. **Bukatu:** 00:19:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Sei hilabete egin zituzten kontzentrazio-esparru batean. Laredotik Mirandara bidali zituzten kontzentrazio-esparrura. Ume batek esandakoak gogoratzen ditu.

78. Mirandako kontzentrazio-esparrua eraikitzen

- **Erref:** EIB-046/017
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:22:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Mirandako kontzentrazio-esparruan sartu eta abade batek diskurtsoa egin zien. Eliza eta guzti zegoen han barruan. Euskaldunak ziren elizako abesbatzan kantatzen zutenak. Txabolak haiek sortu zituzten. Manta eta koilara ziren bakoitzaren jabetza bakarrak, ondo zaindu beharrekoak. Italiarrek ekonomatoa bertan zuten eta preso zeudenek deskargatzen zituzten haien trenak; beti harrapatzen zuten jateko edo erretzeko zerbeit.

79. Jateko bila

- **Erref:** EIB-046/018
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:22:02. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Hasieran ondo ematen zieten jaten Mirandako kontzentrazio-esparruan. Gero gosea pasatu zuten. Sukaldera laguntzaile moduan joan zen eta soberan gelditutako janaria leihotik behera botatzen zien presoek. Segituan bidali zuten sukaldeetik.

80. "Saltaparapetos" edari alkoholduna

- **Erref:** EIB-046/019
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:25:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Irunera bidali zituzten lubakiak egitera. Gertaera bat kontatzen du: "Saltaparapetos" izeneko alkohola zertarako erabiltzen zuten. Kantinplorak beteta edukitzen zituzten. "Casivino" ardoa ere egiten zuten "saltaparapetosa"rekin.

81. Astoa akabatu eta jan

- **Erref:** EIB-046/020
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:25:43. **Bukatu:** 00:27:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Astoa hil eta jan egin zuten. Lagunarena zen astoa.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com